



SARTZEKO BALDINTZAK

IZENEMATEA 2025-2026 ikasturtea • OHAR GARRANTZITSUAK

2025eko maiatza

2025/2026 ikasturtean TOBERA Musika- eta Dantza- eskolan ikasle izan nahi duten guztiek eman behar dute izena orain, bai jarraitu nahi dutenek, bai hasi nahi dutenek. Gure Estatutuetoako 35. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, matrikula berritzen ez duenak, bazkide-izaera galduko du.

1- **Adina.** Musika-hizkuntzan edo/eta dantzan haurrak 4 urterekin has daitezke (2021. urtean jaioak)¹. Helduen matrikulazioak ez du adin-mugarik. [Ikus Taula Pedagogikoa azken orrialdean].

2- **Komunikazioa.** Informazioa euskaraz bidaliko zaizue, baldin eta elebitan jaso nahi duzuela propio adierazten ez baduzue. Edozein unetan alda liteke egindako aukera. Zuekiko komunikazioa posta elektronikoz izango da (eskolan ikasleei eskura banatuko zaizkien oharrez gain eta aurrez aurreko bilerekin gain, esaterako). Horregatik eskatu zaizkizue datu horiek (nahi adina e-mail helbide eman diezazkigukezue).

Bestalde, familia eta ikasleei, arren, ikasturtean zeharreko balizko asistentzia-hutsegiteak irakasleei justifikatzeko erregutzen zaizue.

3- **Gutxieneko matrikulazio-kopuruak.**

• Talde berriak osatu ahal izateko, musika-hizkuntzan 5 ikasle behar dira gutxienez taldeko —orain arte 6 izan dira—. Aurreko ikasturte(eta)tik datozen taldeei baldintza proposetan jarraipena emateko bide modura, gerta liteke bateratzeak edo taldekatze berriak egin behar izatea.

• TOBERAk instrumentu jakina eskaintzen jarraitzeko, gutxienez, 3 matrikula egon behar dira instrumentu horretan. Gaur egungo eskaintzan ez dagoen musika-tresna nahi duenik balego, Zuzendaritza-kideren bati bideratu behar dio eskaera (edo tobera@tobera.org helbidera idatzi), gero musika-eskolak baloratu dezan. Ez dago izena ematerik matrikula-orrian ez dauden ikasgaitan.

Euskal dantzen irakaskuntza izaera propioa du TOBERAren eskaintzaren barruan. Helduen kasuan, hilean 2 orduko saio bakarra izango da, larunbatez printzipioz.

Eskolak Zerainen bertan hartzeko irizpideak hauek dira:

—Musika-hizkuntza → baldin eta gutxienez 2 talde jarraian jartzeko modua dagoen.

—Instrumentua → baldin eta instrumentu bereko 4 ikasle elkarren segidan jartzeko modua dagoen.

Musika-eskolak ahalegina egingo du irizpide horiek betez gero Zerainen bertan eskolak emateko, baina gerta liteke beste baldintza batzuk ere bete behar izatea.

4- **Lehenengo nibela: Harrerakoa.**

Musika-hizkuntzako **lehenengo nibela** 3 mailak osatzen dute (1A, 1B eta 1C) eta ikasturtearen hasieran edo haste-urtea bukatzerako —2025eko abendurako— 4 eta 6 urte bitarte dituzten haurrak aritzen dira nibel honetan. 4 urteko haurra 1An hasiko da, aurreneko aldiz musika-eskolan izena ematen duen 5 urteko haurra 1Bn sartuko da zuzenean, eta 6koa 1Cn, baldin eta maila hori badagoen jada musika-eskolan edo berria eratzeko nahikoa izen-emate biltzen diren. Taldea sortu ezean, gazteagoekin bateratzeko aukerak azter litezke. Hortaz, edozein adinarekin izango du musika-eskolan hastea hala nahi duenak. Aurretik musika-eskolan aritutako ikasleek osatutako taldera sartzen den matrikula berriko ikasleak taldera egokitzea izango du betebeharrak.

¹ Argibideotan aipatzen diren adin guztiak 2025 urtea erreferentziatzat hartutakoak dira.

5-. **Bigarren nibeia.**

Ondoren, **bigarren nibelean** arituko dira ikasleak (ikasturtearen hasieran 7 eta 11 urteko adin-tartean daudenak edo 2025 urtea bukatzerako adin hori beteko dutenak, erreferentzia gisa). Ikasturtearen hasieran 7 urte dituen edo haste-urtea bukatzen denerako 7 urte beteko dituen haurra, 2A mailan (Sarrerakoan) sartzen da zuzenean, baita musika-eskolan arituko den lehendabiziko ikasturtea badu ere. Bigarren nibelean ere, taldea sortu edo egon ezean, gazteagoekin hasteko aukerak azter litezke, beti ere, kontuan hartuta matrikula berriko ikasleak/ikasleek egin beharko duela/dutela ahalegina aurretik martxan den taldera egokitzeko, eta ez alderantziz.

6-. **Musika-tresna.** Instrumentua 2A mailan (7 urterekin) ikasten hastea aukerakoa da (baina gomendagarria, ikasleak gaitasunak balitu). Musika-eskolako irakasleen iritzia kontuan hartzekoa da horretarako. Musika-tresna jotzen ikasten hasi aurretik, oro har, ikasleari musika-hizkuntzan urtebete eginga izatea eskatuko zaio. Beraz, 5. ataleko egoeran dagoen ikasleak —alegia, 7 urterekin zuzenean 2A taldean hasi denak—, ez du aukerarik izango tresna hartzeko. **Musika-tresnan matrikulatzea derrigorrezkoa da ikasle guztientzat 2B mailan** (8 edo 8 urtetik gorako ikasleak). Kasu guztietan, ikaslea, instrumentuko 2A mailatik hasiko da.

7-. 8 edo urte gehiagoko ikaslea TOBERA Musika-eskolan lehenengoz matrikulatzen baldin bada, ez da 1. nibeletik hasiko, 2A mailatik baizik. Oro har, musika-hizkuntzako sarrerako ikasturte bat egin beharko du gutxienez musika-tresna aukeratu ahal izan aurretik.

8-. **Sarrera-proba.** Matrikulatutako ikasleen maila baloratzeko eta egokiena zaien taldea izendatzeko, **sarrera-proba** egiteko eskubidea gordetzen du beretzat TOBERA Musika-eskolak, batik bat aurreko egoeran dagoen ikaslearen kasurako, alegia, 8 urte edo 8 urtetik gora dituen ikasle berriaren maila-egokitasuna neurtzeko.

9-. **Musika-hizkuntza + Tresna.** Edozein instrumentu ikasten ari diren ikasleak **Musika-hizkuntzan ere matrikulatu behar dira, Musika-hizkuntzaren zikloa amaitu arte.** Edonola ere, ikasleak 12 urte beteak baditu, posible izango du instrumentuan soilik matrikulatzea, teoriaren gutxieneko ezagutza demostratuta.

10-. **Panderoa.** Aurreko puntuan –9.enean– esandakoaren salbuespena panderoa izango da. Panderoa ikasteko, musika-hizkuntzako 2A eta 2B mailak soilik egitea nahikoa izango da (horrek ez du esan nahi ikasleak 2B mailan utzi behar dionik musika-hizkuntza ikasteari, noski; kontrara, musika-hizkuntza ikasten jarraitzea onuragarria izango zaiola zalantzarik ez dago). Hori bai, hurrengo puntuan azalduta datorren Diploma eskuratu ahal izateko, beharrezkoa izango da musika-hizkuntza 2E mailara arte gaingiduta izatea, gainerako musika-tresna guztiekin bezalaxe.

11-. **Nor bere erritmoan. Diploma-azterketa.** TOBERA Musika-eskolak arloz arlo eta mailaz maila ezarritako gutxieneko helburu eta programaketetara ikasturtearen bukaeran iristea lortu ez duten ikasleek, maila berean jarraitzeko aukera izango dute. Ikasgai eta ikasturte guztiak egin eta finkatutako helburuak bete dituzten ikasleek (bai Musika-hizkuntzan, bai musika-tresnan) **Diploma** eskuratzeko azterketa egingo dute, bigarren zein hirugarren nibelaren amaieran (ekainean). Ez dago gutxieneko edo gehienezko ikasturte-kopururik nibel bakoitzari dagozkion edukiak ikasteko: 2E mailari dagozkion gaitasunak barneratuta dauzkanean egingo du azterketa ikasleak; berdin 3Dn (Plan Pedagogikoen laburpenak webgunean argitaratuta daude; irakasleari ere galde diezaiokezu). Hirugarren nibelaren ondoren ere, bada zer ikasia; ez da hor amaitzen nahitaez jarduera musika-eskolan.

12-. **Helduak.** Adin-nagusiek beren premietara egokitutako irakaskuntza-eskaintza dute aukeran eta eskura.

13-. **Instrumentuaren alokairua.** Instrumentuan matrikulatzen den ikasleak bere ikasketa pertsonalerako musika-tresna ahalik eta azkarren izatea komeni da, bi ikasturte egin aurretik behintzat. **TOBERA Musika-eskolak bere ikasleei instrumentua bertako musika-tresnak erabiliz ikasteko aukera eskainiko die, ahal den neurrian eta hileroko alokairuaren truke** (11 € hilean; kitapena ikasturte-amaieran). Hau ezinezkoa den kasuetan, irakasleak egon daitezkeen aukeren inguruan aholkuak emango ditu.

14-. Taldeak. 11. atalean aipatu Diploma duten ikasleek, musika-tresna horretako taldean izena emateko aukera dute. Alegia, trikitian nahiz panderoan Diploma duten ikasleek Trikiti/pandero-taldean aritu ahal izango dute nahi izanez gero, edo txistuan Diploma dutenek Txistu-taldean (bide batez, *Txistu-taldea* Zegamako Txistu Bandaz bestelakoa dela ohartarazten dizuegu –bi talde desberdin dira–). Diplomarik ez duten ikasleek, berriz, irakaslearen iritzia jarraitu beharko dute, eta hark proposatuko die talderen batean parte hartzea, balegokio. Beraz, Diploma ez duten ikasleek ere izan dezakete sarbidea talde guztietan, baina irakasleak proposatuko die hori zuzenean ikasleei, behin ikasturtea hasita (interesa baduzue, dena den, ez dago soberan irakaslea jakinaren gainean jartzea). Taldeetako ikasle-partaideei matrikularen tasa eta hileroko kuota kobratuko zaizkie –ikasgai guztietan bezalaxe; alegia, hor ez dago apartekorik–; taldearen hileroko kuota desberdina izango da, ordea, ikaslea TOBERAn bestela ere ikasle bada –hau da, delako taldean aritzeaz aparte– edo talde(et)an bakarrik izena emanda badago –kuota merkeagoa izango dute bestela ere ikasle direnek, talde-praktika gainerakoaren osagarritzat joko zaielako–.

15-. Ekintzak. Jendaurreko ekintza asko eta askotarikoak biltzen ditu ikasturtero eskolako egutegiak. Musika-eskolaren berezko testuingurutik eta dinamikatik aparte ere, ikasleek musika-gaitasunak lan ditzaten aukerak eskainiko dira (topaketak, jaialdiak herrian...). Horietan ez dira musika-eskolako langileak izango beti, eta familiak berak izango dira kasu horietan arduradun (Zuzendaritza-batzordekoak nahiz bestelakoak).

Ekintzak daudenean, gerta liteke eskolak bertan behera utzi behar izatea, ekintzagatik beragatik eta baita ekintza prestatzeko egin beharreko lanengatik ere.

16-. Egutegia. Ordutegi-banaketa. **2025eko irailaren 9an**, asteartea, emango zaie ikasleei matrikulatutako ikasgaien asteko saioen ordutegia: Musika-hizkuntzako behin-behineko taldeak eta orduak e-mailez bidaliko zaizkie matrikulatutakoei irailaren hasieran (dantzakoak ere bai, Zegamaren kasuan). Taldekatze eta ordutegi horiek irailaren 9tik aurrera izango dira behin betikoak. Instrumentuetako orduak zehazteko, irailaren 9an irakasle bakoitza matrikulatutako ikasleekin elkartuko da arratsaldeko 17:30ean Zegamako Jabier Otaegi kultura-etxean eta arratsaldeko 19:00etan Segurako Laiotz Herri-eskolan (edozein arrazoiengatik epetik kanpo matrikulatu nahi lukeen ikasleari ez zaio matrikula egiteko aukera bermatuko, eta, egiterik izanda ere, ez luke inolako lehentasunik izango ordutegiak aukeratzerakoan). **Eskolak irailaren 10ean hasiko dira**, asteazkena.

17-. Matrikulari baja. Behin ordutegiak eta taldekatzeak zeintzuk izango diren jakinda, **matrikularen baja egiteko aukera** izango da, horretarako matrikularen *Baja-orria* beteta, sinatuta eta eskaneatuta (argazki bat aterata), eta tobera@tobera.org helbidera e-mailez bidalita. Baja-eskaera **irailaren 21a** baino lehenago bidali beharra dago. **Hortik aurrera, matrikula behin betikoa izango da eta ikasturte osoko ordainketak egiteko konpromisoa ere betekizun bihurtuko da.**

18-. Tasak. Matrikularen ordainketa (24,5 euro ikasgai bakoitzeko) iraileko kuotaren helbideratzearekin batera kobratuko da. Irailean baja emandakoei ere bai (17. puntuan aipatutakoa). **Familia ugariko** kide diren ikasleei matrikularen erdia baino ez zaie kobratuko ikasgaiko. Eskubide horretaz baliatzen hasteko, matrikula-orria entregatzearekin batera, familia ugaria izatearen egiaztagirik konpultsatua erantsi behar da derrigorrez. Aurrez entregatua dutenek ez dute urtero entregatu behar. Ez du eraginik familia ugaritik zenbat seme-alabek ikasten duten musika-eskolan.

10 kuota kobratzen dira ikasturteko, irailetik ekainera, biak barne.



CONDICIONES DE ACCESO

MATRÍCULA curso 2025-2026 • NOTAS IMPORTANTES

Mayo de 2025

Han de matricularse ahora todas aquellas personas que quieran formar parte del alumnado de TOBERA Musika- eta Dantza-eskola el curso 2025/2026: tanto las que vayan a continuar como las que deseen iniciar sus estudios en la escuela. Según lo dispuesto en el artículo 35º de los Estatutos del centro, todo aquel que no renueve la matrícula dejará automáticamente de ser socio de la musika-eskola.

1- Edad. El alumnado puede cursar Lenguaje Musical (*Musika-bizkuntza*) y/o Bailes Vascos (*Dantza*) a partir de los 4 años (nacidos en 2021)¹. La matrícula de adultos no tiene limitaciones en cuanto a edad. [Consultar Tabla Pedagógica al final de estas notas].

2- Comunicación. La comunicación por escrito a familias será en euskara, en caso de no solicitarla expresamente bilingüe. Os animamos a que optéis por la versión en euskara, puesto que la selección puede modificarse sin problema en cualquier momento. Recibiréis todas nuestras comunicaciones por correo electrónico (además de, entre otros, circulares que se le entregarán en la escuela en mano al alumnado, y entrevistas personales con vosotros y vosotras); por ello, se os ha solicitado a familias y alumnado que nos aportéis vuestra dirección de e-mail (podéis indicar tantas direcciones como queráis). Por otra parte, se os ruega justificar ante el profesorado las faltas de asistencia que pudieran producirse a lo largo del curso escolar.

3- Matriculación mínima exigible.

- Para formar nuevos grupos, es necesaria la matrícula de, al menos, 5 alumnos o alumnas en Lenguaje Musical para ese grupo en cuestión —hasta ahora eran 6—. Puede que, grupos provenientes de cursos anteriores, requieran unificaciones o reagrupaciones a fin de poder darles continuidad en condiciones adecuadas.

- En el caso del instrumento, TOBERA dejará de ofertar aquel instrumento en el cual no se matriculen un mínimo de 3 personas. En el caso de que alguien esté interesado en algún instrumento que en la actualidad no oferte la musika-eskola, ha de trasladar su solicitud a algún integrante de la Junta Directiva o escribir a la dirección tobera@tobera.org, a fin de que posteriormente la escuela valore la viabilidad de esa opción. No hay posibilidad de inscribirse en asignaturas distintas a las indicadas en la Hoja de Matrícula.

La enseñanza de **bailes vascos** tiene un carácter diferenciado dentro de la oferta de TOBERA. Al alumnado adulto inscrito en bailes vascos se le impartirá una única sesión mensual de 2 horas, en sábado, en principio.

Los criterios para impartir **clases en Zerain** son los que siguen:

—Lenguaje Musical → siempre y cuando puedan concatenarse en horario al menos 2 grupos.

—Instrumento → siempre y cuando puedan coincidir en horario al menos 4 alumnos/as de un mismo instrumento de manera sucesiva.

La musika-eskola tratará de impartir clases en Zerain siempre que estos criterios se cumplan, pero puede que concurren también otras circunstancias que haya que tomar en consideración.

4- Primer nivel.

El **primer nivel** de Lenguaje Musical engloba 3 cursos (1A, 1B y 1C), y una edad comprendida entre los 4 y los 6 años, ya cumplidos al inicio del curso o a cumplir antes de que finalice el año —es decir, para diciembre de 2025—. Los grupos se forman en base a la edad del alumnado. Así, a los 4 años, se inscribirá al alumno en el curso 1A; un alumno de nueva matriculación que tenga o vaya a cumplir dentro del año 5 años, empezará directamente en el curso 1B; y aquel que tenga 6 años hará lo propio en el curso 1C, siempre y cuando exista ese grupo o se hayan producido las suficientes matrículas para conformarlo. En caso contrario, podrá valorarse la posibilidad de incorporación a un grupo de menor edad. Evidentemente, será el alumnado de nueva matriculación que se una a un grupo ya existente, el que deberá adaptarse, y no al revés.

¹ Todas las edades aquí mencionadas se refieren al año 2025 (año de inicio del curso escolar).

5- Segundo nivel.

Posteriormente, el alumnado avanza a un **segundo nivel** (edad de permanencia: entre los 7 y los 11 años, según la edad al inicio del curso o los años que vayan a cumplir antes de que acabe el año de comienzo del mismo –es decir, antes de que acabe 2025–). El niño o niña que tiene 7 años, cursa el módulo 2A, también en el caso de que sea su primer curso en la Musika-eskola. Al igual que en el primer nivel, en caso de que no se forme grupo ni lo haya con alumnado proveniente de cursos anteriores, cabe la posibilidad de unirse a alumnado de edad inferior, adaptándose siempre al nivel del grupo de acogida.

6- Instrumento musical. Es opcional (pero recomendable, si el alumno/a muestra aptitudes) empezar con el instrumento en el curso 2A (con 7 años). En estos casos se recomienda atender a la opinión del profesorado de la Musika-eskola. Antes de empezar a aprender a tocar un instrumento musical, por norma general, se le requerirá al alumnado un año previamente cursado en musika-hizkuntza. Por lo tanto, el alumnado que se encuentre en la situación descrita en el apartado 5º, es decir, aquel que con 7 años haya empezado directamente en 2A, no tendrá opción de escoger instrumento. **La matrícula en instrumento es obligatoria para todos a partir del curso 2B** (inclusive; alumnos de 8 años o mayores). El alumnado iniciará el ciclo de instrumento siempre desde el nivel 2A correspondiente al mismo.

7- Los alumnos y alumnas de 8 o más años de edad que se matriculen por vez primera en TOBERA Musika-eskola, comenzarán por defecto desde el curso 2A –tal y como se ha indicado en el apartado 5º, no desde el primer nivel–, pero, eso sí, deberán por lo general realizar previamente a la elección del instrumento al menos un curso de preparación en Lenguaje Musical.

8- Prueba de acceso. TOBERA Musika-eskola se reserva el derecho a realizar una **prueba de acceso** al alumnado matriculado a fin de determinar qué curso le es el más indicado, sobre todo de cara a responder eficazmente a la situación recogida en el punto anterior (es decir, de cara a medir la adecuación de nivel del nuevo alumnado de 8 o más años).

9- Lenguaje Musical + Instrumento. Todos los alumnos y alumnas que estén cursando algún instrumento deben también matricularse en Lenguaje Musical, hasta finalizar el ciclo formativo correspondiente a esta última asignatura. De todos modos, si el alumno o alumna ya hubiera cumplido los 12 años, le sería posible matricularse tan sólo en instrumento, siempre y cuando muestre un conocimiento teórico musical básico.

10- Pandero. La excepción a lo dispuesto en el apartado anterior será tan solo aplicable al pandero. Para seguir estudiando pandero, independientemente de su edad, será suficiente con que el alumnado haya cursado en Lenguaje Musical los cursos 2A y 2B (lo cual, evidentemente, no sugiere en absoluto que el alumnado de pandero deje de formarse en Lenguaje Musical en el curso 2B; al contrario, es incuestionable que le resultará beneficioso seguir estudiando Lenguaje Musical). No obstante, para la obtención del Diploma al que se refiere el siguiente punto, será necesario que tenga aprobado Lenguaje Musical hasta el curso 2E, exactamente igual que para el resto de instrumentos.

11- Respetamos el ritmo de cada cual. Examen de Diploma. El alumnado que no haya conseguido llegar a los mínimos necesarios fijados por esta Musika-eskola para cada asignatura y curso al término del mismo, podrá cursar el mismo nivel el curso siguiente. Los alumnos y alumnas que habiendo realizado la totalidad de cursos y asignaturas hayan cumplido los objetivos estipulados (tanto en Lenguaje Musical como en instrumento, al mismo tiempo), realizarán un examen para la obtención del correspondiente **Diploma**, tanto al finalizar el segundo nivel como al término del tercero (en junio). No existe ni un mínimo ni un máximo de años para alcanzar los contenidos correspondientes a cada nivel: cuando el alumno o la alumna haya interiorizado las competencias asignadas al curso 2E es cuando realizará el examen; lo mismo en relación al curso 3D (los resúmenes de los Planes Pedagógicos están publicados en la página web de la escuela y también podéis consultar al profesorado directamente). No obstante, el aprendizaje musical continúa más allá del final del tercer nivel (es decir, alcanzar el curso 3D no es necesariamente sinónimo de término).

12- Alumnado adulto. Los alumnos y las alumnas mayores de edad, tienen a su disposición una oferta educativa adecuada a sus necesidades, no ceñida necesariamente ni estrictamente a lo aquí indicado.

13- Alquiler del instrumento. Es conveniente que el alumno o alumna que se matricule en instrumento disponga cuanto antes de su propio instrumento, como máximo antes de realizar dos cursos, para así poder desempeñar un adecuado estudio personal. **TOBERA Musika-eskola ofrecerá a sus alumnos, en la medida de sus posibilidades y cobrando un alquiler mensual a cambio (11 €/mes, liquidables a finales de curso), la oportunidad de practicar utilizando los instrumentos y espacios de que dispone.** En los casos en que esto no sea posible, el profesorado orientará sobre las posibilidades que existan en el mercado.

14- Grupos. El alumnado que cuente con el Diploma mencionado en el punto nº 11, puede inscribirse libremente en el grupo o en los grupos relacionados con su instrumento. Es decir, el alumnado que cuente con el Diploma correspondiente a trikiti o a pandero, podrá a criterio propio participar en el 'Grupo de Trikiti/pandero' de la escuela, o en 'Txistu-taldea' el alumnado que lo tenga en txistu (tened en cuenta que 'Txistu-taldea' no es lo mismo que la Banda de Txistularis de Zegama –son 2 agrupaciones independientes–). En cambio, el alumnado que no cuente con el Diploma de 2º ni de 3er nivel, habrá de seguir lo indicado por su profesor. Es decir, el alumnado sin Diploma también tiene acceso a todos los conjuntos instrumentales existentes, pero será el profesorado quien al inicio del curso escolar proponga directamente al alumnado tocar en uno u otro grupo, si procede (en cualquier caso, en caso de tener interés, no está de sobra que así se lo comunicéis al profesorado de instrumento). Por la participación en cualquier grupo se cobrará la tasa de matrícula inicial y la cuota mensual; como en toda asignatura. La diferencia radica en que la cuota mensual será distinta para cada alumno dependiendo de si la persona participante en el grupo es alumna en TOBERA en cualquier otra asignatura –además de la referida participación en el grupo en cuestión– o si, por el contrario, solo es integrante de grupos musicales en la musika-eskola –el alumnado cursante de otras materias tendrá una cuota rebajada en su participación en grupos, puesto que la práctica musical grupal la consideramos complementaria al resto de formación–.

15- Actuaciones. El calendario escolar contempla muchas y variadas actividades públicas cada curso. Es objetivo de esta escuela ofrecer la posibilidad de que el alumnado profundice en sus competencias también más allá del contexto y de la dinámica propia y exclusiva de la musika-eskola (en encuentros, festivales y celebraciones populares...). En este tipo de eventos no siempre habrá un miembro de la musika-eskola al cargo, y, en esos casos, serán las propias familias las encargadas (tanto las integradas en la Junta Directiva como el resto). Es probable que, cuando acontezcan actuaciones, haya que suspender clases, tanto por dotar del protagonismo necesario a la propia actuación, como por las labores de preparación y ensayo correspondientes.

16- Calendario. Reparto de horarios. El horario de las asignaturas a las que se hayan matriculado les será dado a conocer a los alumnos el **9 de septiembre de 2025**, martes: de manera provisional, los grupos y horarios de Lenguaje Musical se comunicarán por correo electrónico a principios de septiembre (también los de *Dantz*a, en el caso de Zegama). Estos grupos y horarios pasarán a ser definitivos a partir del 9 de septiembre. Para concretar los horarios de las sesiones de instrumento, cada profesor se reunirá ese mismo 9 de septiembre con los alumnos matriculados en su instrumento a las 17:30 de la tarde en la Kultura-etxea Jabier Otaegi de Zegama y a las 19:00 de la tarde en la escuela Laiotz de Segura (a los alumnos o alumnas que por cualquier circunstancia quisieran matricularse fuera de plazo, no se les garantiza posibilidad de matrícula, e incluso pudiendo hacerla, carecerán de cualquier prioridad en la elección del horario). Las clases comenzarán el **10 de septiembre**.

17- Opción de baja. Una vez conocidos los horarios y los grupos de todas las sesiones, habrá opción de darse de baja de la matrícula realizada ahora, rellenando y firmando para ello un impreso de solicitud de baja de matrícula (podéis cumplimentar el impreso y enviar una foto del mismo). Esto se podrá realizar antes del día **21 de septiembre de 2025** mediante el envío de un mensaje a la dirección tobera@tobera.org. A partir de ese momento, todas las matrículas realizadas se considerarán definitivas y supondrán el compromiso de pagar todas las cuotas del curso completo obligatoriamente.

18- Tasas. El pago de la matrícula (24,5 euros por asignatura) se realizará junto a la domiciliación de la cuota de septiembre, también en el caso de aquellos que se den de baja ese mismo mes (la opción mencionada en el punto anterior). A aquellos alumnos y alumnas integrantes de una familia numerosa, tan sólo se les cobrará el 50% de la citada matrícula. Para valerse por primera vez de este derecho, es requisito indispensable adjuntar al Impreso de Matrícula la fotocopia compulsada del justificante de familia numerosa. Aquellos que la tengan entregada de cursos anteriores, no necesitan volver a presentarla. Es indiferente cuántos miembros de la familia numerosa sean alumnos en TOBERA.

Se cobran 10 cuotas por curso, de septiembre a junio, ambos inclusive.